

Gender A B C

Bigarren Hezkuntzarako
heziketa-programa



Ziber-indarkeria

GenderABC (ABC Generoa) proiektuaren koordinatzailea da



eta abian jarri dutenak dira



Argitalpen hau Europar Batasuneko Eskubideak, berdintasuna eta Herritartasuna Programak (2014-2020) finantzatu du.



Bigarren Hezkuntzarako
heziketa-programa

Ziber-indarkeria

Heziketa-modulu hau **Médicos del Mundo** elkarteak landu dute GenderABC proiektuaren barruan.

Aurkibidea

Aurkibidea	2
I - atala: Sarrera	3
1. Xedea	3
2. Gai nagusiak	3
3. Gako-hitzak	3
4. Ikasketa-xedeak	4
5. Jardueren zerrenda	4
II - atala: Jarduerak	5
1. jarduera: Ziber-jazarpenari buruzko azterlanak	5
• Testuingurua	5
• Gidoia	5
• Jarraibideak	8
2. jarduera: Jolas burrunbaria	9
• Testuingurua	9
• Gidoia	9
• Jarraibideak	10
3. jarduera: Auto-hedapena harremanetan	11
• Testuingurua	11
• Gidoia	11
• Jarraibideak	12
Saioaren egitura	13
Moduluen zerrenda	15

I - atala

SARRERA

1. Xedea

Sare sozialak komunikatzeko eta sozializatzeko tresna nagusi bilakatu dira gazteen artean; izan ere, pertsonen arteko etengabeko eta berehalako harremana sorrarazten dute.

Sare sozialak gizartearen ispilu bat dira, non emakumeen eta gizonen estereotipoetan oinarritutako irudia errepikatzen den. Are gehiago, jokabide sexista berehalakotasunaz, erabilgarritasunaz, informazio-testuingururik ezaz eta Interneteko anonimotasunaz baliatzen da. Europan, hamabost urte baino gehiagoko emakumeen % 10 ziber-indarkeria motaren baten biktima izan da¹.

Ziber-indarkeria emakumeen eta nesken aurka (ingelesez, *Cyber Violence Against Women & Girls*) –edo genero-arauekin bat egiten ez duen jendearen aurka– Interneten gauzatzen den Generoan Oinarritutako Indarkeriaren adierazpena da. Hainbat forma izan ditzake, hala nola ziber-jazarpena, mendeku pornografia (edo *revenge porn*), gorroto eta eraso diskurtsoak, online genero jazarpena, inor prostitutatzat jotzea (edo *slut-shaming*), adostu gabeko pornografia, “sextortsioa”, hilketa- eta bortxaketa-mehatxuak eta elektronikoki erraztutako pertsona-trafikoa². Modulu honen ardatza nerabeei eragiteko arrisku gehien duten ziber-indarkeria motak izango dira.

Modulu honen helburua da parte-hartzaileek hausnartu dezatela sare sozialek beren bizitzetan duten inpaktuaz; horretarako, ulertu behar dute edukia online partekatzeak zer nolako ondorioak dituen, eta sare sozialak kontzientziaraz nola erabili behar diren.

2. Gai nagusiak

- Generoko ziber-indarkeriak har ditzakeen formak.
- Sare sozialak eta sakelako telefonoetako aplikazioak ziber-indarkeria burutzeko tresnak izan daitezke.
- Generoko ziber-indarkeria arau sozialen eta estereotipo sexisten isla da.
- Generoko ziber-indarkeriak ondorioak ditu pertsonen bizitza errealean eta delitua da.

3. Gako-hitzak

Ziber-jazarpena • Sexting-a • Sexspreading-a
Revenge-porn edo mendeku-pornografia • Cyberbullying-a
Ziber-abusua • Sextortsioa • Adingabekoekiko ustelkeria

¹ *Violence against women: an EU-wide survey*, (Emakumeen aurkako indarkera: inkesta bat eskala handian Europar Batasunean); online eskuragarri hemen: <https://fra.europa.eu/en/publication/2014/violence-against-women-eu-wide-survey-main-results-report>
² <https://eige.europa.eu/thesaurus/terms/1484>

4. Ikasketa-xedeak

- Sare sozialek gure komunikazioa, elkarreragitea eta geure burua eta besteak hautemateko eran nola eragiten duten hausnartzea.
- Emakumeen eta nesken aurkako ziber-jazarpenaren eta ziber-kontrolaren hainbat era eta modalitate identifikatzea.
- Generoan oinarritutako estereotipoek emakumeen eta nesken aurkako ziber-indarkerian duten eragina aztertzea.
- Sare sozialen erabilera seguru eta arduratsua sustatzea.
- Ziber-aktibismoa sustatzea generoan oinarritutako indarkeriaren aurka borrokatzeko

5. Jarduera-zerrenda

	 Jardueraren izena	 Iraupena guztira	 Materialak	 Garrantzia ³
1	Ziber-jazarpenari buruzko azterlanak	40 minutu	• Ziber-indarkeriako kasu zehatzak azaltzen dituzten txartelak • Arbela edo paperezko arbela ondorioak jasotzeko	☆☆☆
2	Jolas burrunbaria	15 minutu	• Txirrina • Arbela edo paperezko arbela ondorioak jasotzeko	☆☆☆
3	Auto-hedapena aplikazioetan eta sare sozialetan	20 minutu	• Papera • Arbela edo paperezko arbela ondorioak jasotzeko	☆☆☆

³ Jarduerak izarrekin sailkatzen dira (izar bat eta hiru izar bitarteko sailkapenarekin) garrantziaren arabera; adibidez, "oso gomendagarria" den jarduera bat hiru izarrekin sailkatzen da.

II - atala

JARDUERAK

I. jarduera Ziber-jazarpenari buruzko azterlanak ☆☆☆



Jardueraren iraupena guztira

40 minutu
Prestatzea: 5
Egitea: 15
Segimendua: 20



Materialak

- ☐ Ziber-indarkeria aztertzeko txartelak
- ☐ Arbela edo paperezko arbela ondorioak jasotzeko

→ TESTUINGURUA

Jarduera hau egiteko taldeka banatuko dira neskak eta mutilak, **beren genero-esperientziak islatu ditzaten, eta horiek partekatu eta alderatu ditzaten eta ziber-indarkeriaren aldean aztertu ditzaten** (mutilak egileak moduan eta neskak biktima moduan); horretarako, konpromiso bateratu bat sorraraziko da esperientziak alderatzeko.

Xedea genero-ezberdintasunak dira, eta ezberdintasun horiek genero-estereotipoekin eta botere-harremanekin lotzen dira; **helburua da parte-hartzaileek islatu ditzaten edertasunaren kanonaren eta “maitasun erromantikoaren” kontzeptuaren eragin negatiboak, eta adostasunaren garrantzia nabarmendu dezaten.**

→ GIDOIA



Bi taldetan banatuko ditugu neskak eta mutilak.



Talde bakoitzari azterlan bateko txartel bat emango diogu:

- Zer egingo zenuke pertsona hori izango bazina?
- Hori inoiz gertatu al zaizu? Ezagutzen al duzu inor hori gertatu zaionik?
- Egoera hori generoan oinarritutako indarkeria moduan deskribatuko al zenuke? Zergatik? Zergatik ez?
- Hala bada, zure ustez, nor da erantzulea eta nor biktima? Zure ustez, zer nolako ondorioak ditu horrek biktimarentzat? Eta gizartearentzat?



Talde bakoitzak bere hausnarketak partekatuko ditu eztabaidari hasiera emateko.



Amaitzeko, parte-hartzaileei lagunduko diegu elkarrekin identifikatzeko ziber-indarkeriaren forma ezberdinak, horren ondorioak eta horiek saihesteko modua.

Azterlanak

1) Ziber-jazarpen sexista: Sareko inkesta

Pedrok esteka bat jaso du whatsapp bidez bere ikasgelako nesken alde bozkatzeko. Honako hauek dira sailkapen-kategoriak: 1) lodia; 2) berogarria; 3) urdanga; 4) lesbiana; 5) birjina; 6) ikastuna; eta 7) itsusia.

2) Ziber-kontrola: Identifikatu lapurreta- eta mendeku-pornoa

Zure lagun Mariak argazki bat igo du Facebookera goiko aldea biluzik duelarik, eta mutil eta neska askok hainbat gauza galdetu dizkiote, baita iraindu ere. Azalpena eskatu diozunean, esan dizu bere mutil-lagun ohiak bere Facebookeko pasahitza zuela, aldatu egin duela, eta ondoren, argazkia argitaratu. Orain, ezin daiteke sartu, eta ez daki zer egin.

3) Ziber-jazarpena (homofobia): Fan-orrialdea

Norbaitek Facebook orrialde bat sortu du Juani buruz –zeina gay den–, non jendeak burla egiten dion eta iraindu eta mehatxatu egiten duen.

4) Ziber-kontrola: Pasahitzak

Pedrorekin ateratzen ibili zara bi hilabetetan; oso gustuko duzu, eta berak Instagrameko pasahitza eskatu dizu, maitasun-adierazpide moduan, berak hori dela uste baitu; bestela, utzi egingo zaitu.

5) Ziber-kontrola: Geolokalizazioa

Zure familiarekin zaude eta zure mutil-lagunaren whatsapp jaso duzu, zeinak uste baitu engainatzen ari zarela, eta ondorioz, geolokalizatzailea bidaltzea eskatzen dizu.

6) Ziber-jazarpena: Adingabeekiko ustelkeria

Rominak mutil baten Facebookeko lagun-eskaera bat jaso zuen; harremanetan jarri, eta hainbat argazki eman zizkioten elkarri. Patinetean ibiltzea du gustuko, berak bezala, eta oso ederra da. Elkar zuzenean ezagutu dutenean, 50 urteko gizon bat dela ikusi du.

7) Ziber-jazarpena: Emakumeen sexualizazioa

Peter telebistako serieak ikusten ari da bere arrebeekin, eta whatsapp jaso du: meme bat da eta neska bat agertzen da galtza laburrekin bizikleta batera makurtuz. Erantzun egiten du esanez zer sexya den.

8) Ziber-jazarpena: Eduki sexuala

Mary nazkatuta dago zenbaki ezezagun batekin; izan ere, mutil biluzien eta zakilen argazkiak bidaltzen dizkio une oro. Oso lotsatuta sentitzen da, norbaitek ikus dezakeenaren beldur.

9) Ziber-kontrola: Geolokalizazioa

Anak entzun du Peterrek, ezagutzen duen mutil batek, aplikazio bat jarri duela bere neska-lagunaren telefonoan une oro lokalizatu dezan.

10) Ziber-jazarpena: Sexting-a eta sextortsioa

Ana eta Robert pare bat aldiz atera dira elkarrekin, eta Anak hainbat argazki eman dizkio, non batzuetan bere gelan agertzen den biluzik. Gaur mutilak mehatxatu egin du esanez argazkiok ausaz bidaliko dituela eta sare sozialetan argitaratuko dituela.

→ JARRAIBIDEAK

Eztabaidari ekingo diogu, honelako galderak eginez:



- Zer ikasi duzu jarduera honetan?
- Nola sentituko zinateke orain antzeko esperientzia bat biziko bazenu?
- Zer egingo zenuke ziber-indarkeria jasaten ari den norbaiti laguntzeko?
- Hemendik aurrera, nola erantzungo duzu zure lagunen batek ziber-indarkeriazko ekintzaren bat gauzatzen badu?

Gero, lehen aipatutako egoeren arabera, parte-hartzaileei eskatuko diegu osoko bilkuran parteka ditzatela ikasi dituzten gauza berriak:

- Edertasunaren kanona, emakumeak eta neskak gauza bihurtzea eta sexualizatzea (*indarkeria sinbolikoa*) (1, 7 kasua)
- Gorputz, identitate eta sexu-orientazio dibertsitatea (1, 3 kasua)
- Sinesmen sexistak gizonen eta emakumeen sexualitateari buruz (*heteronormatibitatea*) (1, 2 kasua)
- Harreman osasuntsuak: desira, desiratutako adostasuna, independentzia eta bidezko tratua dira; eta ez dira: kontrola, jabetza, jeloskortasuna, bizitzako bikotea eta maitasun-testak (*maitasun erromantikoa harremanetan*) (2, 4, 5, 8 kasuak)
- Ziber-delituak: identitatea ordeztu, informazioa baimenik gabe partekatu, xantaia egin eta abar (2, 5, 6, 8 kasuak)

Geuk ere azaldu dezakegu nola kudeatu sare sozialak modu pribatuan.

2. jarduera Jolas burrunbaria ⁴ ★★☆☆



Jardueraren iraupena guztira

20 minutu
Prestatzea: 3
Egitea: 5
Segimendua: 12



Materialak & Iturriak

- ☐ Txirrina
- ☐ Arbela edo paperezko arbela ondorioak jasotzeko
- ☐ *El fútbol* bideoa (Futbola)⁵

aukerako

→ TESTUINGURUA

Jarduera honen helburua da bikotekide **gizonezkoek teknologia bidez kontrolatzen dituzten emakumeen eta nesken tokian jartzea**, eta eztabaidatzea nola egin ahal dakioken aurre teknologia harremanetan modu kaltegarrian erabiltzeari. Txirrinen helburua da islatzea nolakoak diren bikotekidearen testu-mezu ez desiratuak, disruptiboak edo mehatxagarriak, kontrol mekanismo moduan gauzatuak (Zer egiten ari zara? Zergatik ez duzu erantzuten? Non zaude?).

Parte-hartzaileek irekiago egon daitezen eta emozioak hobeto barneratu ditzaten, erlaxazio-teknika bat gauzatuko dugu jarduera hasi baino lehen.

→ GIDOIA



Honako esaldi hau idatziko dugu arbelean: "Harreman osasuntsu eta seguru bat izateko eskubidea dut".



Parte-hartzaile bakoitzari orri-zati bat emango diogu.



Parte-hartzaileek esaldia kopiatuko dute folioaren erdi batean.

⁴ Jarduera hau hemendik egokitu da: *The Cyber Abuse Project* (Ziber-abusu Proiektua); online eskuragarri hemen: <https://www.breakthecycle.org/>

⁵ Asociación de Mujeres Cineastas y de Medios Audiovisuales (CIMA), 1. kapituluak, *El fútbol*, online eskuragarri hemen: https://www.breakthecycle.org/sites/default/files/Break%20the%20Cycle%20Activity%20Guides_0.pdf



Txirrina jotzen entzuten dutenean nork beren izen osoa idatziko du folioaren beste erdian.



Amaitu ondoren, esaldia folioaren beste erdian idazten jarraituko dute, hasieratik, txirrinak hurrengo jotzen duen arte.

Parte-hartzaileek hitz gutxi batzuk baino ezin idatzi ahal izango dituzte bi txirrin-soinuren artean.

→ JARRAIBIDEAK

Ondoren, eztabaida bat hasiko dugu osoko bilkuran, ziurtatzeko parte-hartzaileek jardueran zehar sentitu ditzaketen emozioak jendeak sentitzen dituen emozioekin lotzen direla kontroleko mezuak jasotzen dituztenean..

Honako galdera hauek egingo ditugu:

- Nola sentitu zinen jardueraren hasieran, jardueran zehar eta jardueraren amaieran?
- Zenbat aldiz utzi dizute zure izena idazten?
- Zure ustez, mezu horiek abusuzkoak al dira? Zergatik? Zergatik ez?
- Egoera horiek eskolan ere gertatzen al dira?
- Hori inoiz gertatu al zaizu? Zer ikusi zenuen? Zer egin dezakezu horrelakoak geldiarazteko?



Parte-hartzaileen erantzunak oinarritzat harturik, egoera horien ondorioak nabarmenduko ditugu, esaterako, isolamendua, beldurra, estutasuna, norbere buruaren jokabidea zalantzan jartzea eta askatasunik eza sentitzea.

Jarduera amaitzeko, *El fútbol* bideoa jar dezakegu; ondoren, eztabaida bat ireki dezakegu, teknologia bidez eta generoan oinarritutako indarkeria bidez kontrolatzeko jokabideari buruz.

3. jarduera Auto-hedapena harremanetan ★★



Jardueraren iraupena guztira

20 minutu
Prestatzea: 3
Egitea: 5
Segimendua: 12



Materialak & Iturriak

- ☐ Beirazko ontzia
- ☐ Papera
- ☐ Arbela edo paperezko arbela ondorioak jasotzeko
- ☐ *La contraseña* bideoa (Pasahitza)⁶

aukerako

→ TESTUINGURUA

Sare sozialek komunikazioa errazten dute; baina arriskuak ere badituzte, ez baldin badakizu nola erabili modu egokian.

Jarduera honen helburua da **parte-hartzaileek ulertzea zer nolako eragina duen edukiak online partekatzeak**. Izan ere, informazio pribatua paper batean idatzi eta beirazko ontzian sartuz gero, parte-hartzaileek sentitu ditzakete sekretuak edo informazio konfidentziala norbaitekin partekatzen dutenean sentitzen dituzten emozio berak (lotsa, beldurra, urduritasuna irakurtzeko edo hedatzeko eta abar

→ GIDOIA



Bakoitzari folio erdi bat emango diogu.



Eskatuko diegu beraiei buruzko informazioen bat idazteko (familia, haurtzaroa, ametsak, beldurrak eta/edo sentimenduak) eta folio erdia tolesteko.

⁶ Asociación de Mujeres Cineastas y de Medios Audiovisuales (CIMA), 5. kapitulua, *La contraseña*; online eskuragarri hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=82HNR1XKrd0>



Amaitu ondoren, beirazko ontzi baten barruan jarriko dute.



Ondoren, parte-hartzaileek binaka lan egingo dute, neskak eta mutilak banatuz, eta honako galdera hauen gainean hausnartuko dute:

- Zer iruditzen zaizu beste batek zuri buruzko informazio pribatua izatea? Eta zuk beste norbaiten informazioa izatea?
- Zure ustez, norbaitekin informazio pribatua partekatzeak harremana sakondu al dezake?
- Ba al dago alderik informazioa digitalki partekatzen dugunean?
- Inoiz zuri buruzko informazio pribaturik partekatu al duzu sare sozialetan edo eskuko telefonoen aplikazioetan? Zer iruditzen zaizu beste norbaiten informazioa partekatzea haren baimenik gabe? Inork partekatu al du zuri buruzko informaziorik zure baimenik gabe? Nola sentiarazi zintuen?

→ JARRAIBIDEAK

Jardueraren ondoren, eztabaidari ekingo diogu osoko bilkuran; horretarako, parte-hartzaileei eskatuko diegu beren hausnarketa pertsonalak parteka ditzaten eta eztabaidatu dezaten Interneten edukiak partekatzeak duen eraginari buruz.

Galdera soilak egin ditzakete; esaterako:

- **Nola sentitzen zara orain? Nola deskribatu ditzakezu zure sentimenduak hitz bakar batekin?**
- **Zer ezberdintasun aurkitzen duzu nesken eta mutilen emozioen artean? Eta zergatik, zure iritziz?**



La contraseña bideoa ikusteko nahikoa astia izanez gero, eztabaidari ekin ahal izango diogu “maitasun erromantikoari” eta generoan oinarritutako indarkeriari buruz, eta batez ere, nabarmenduko dugu ez dela pasahitzik partekatu behar maitasun-adierazpen moduan, hori oso garrantzitsua da.

Saioaren egitura

Moduluaren izena: Ziber-indarkeria

Ikastetxea: _____

Irakaslea, arduraduna:_____

Ikasgela (Ikasturtea eta data): _____

Parte-hartzaileen kopurua: _____

Data: ____/____/____ **Iraupena:** _____

Aukeratutako jarduerak: _____

Materialak (berrikusiak): ☐ bai ☐ ez

OHARRAK:

[illegible]

OHARRAK:

[illegible]

Gender ABC projektwaren

MODULUEN ZERREDA

Moduluen
Bigarren
Hezkuntzarako
heziketa

- 01 **Ziber-indarkeria**
- 02 *Ezkontza goiztiarra eta behartua*
- 03 *Ahalduntzea eta komunikazio-gaitasunak*
- 04 *Emakumeen genitalen mutilazioa*
- 05 *Genero-indarkeria*
- 06 *Generoko gizarte-arauak eta estereotipoak*
- 07 *Talde-kohesioa*
- 08 *Giza eskubideak eta haurren eskubideak*
- 09 *Bikote barruko indarkeria*
- 10 *Sexu-orientazioa eta genero-identitatea*
- 11 *Sexu- eta ugalketa-osasuna eta eskubideak*
- 12 *Sexu-indarkeria*

Moduluen
Lehen
Hezkuntzarako
heziketa

- 01** *Gorputzaren segurtasuna / Emakumeen genitalen mutilazioa*
- 02** *Ahalduntzea eta komunikazio-gaitasunak*
- 03** *Generoan oinarritutako indarkeria*
- 04** *Generoaren arau sozialak eta estereotipoak*
- 05** *Giza eskubideak eta haurren eskubideak*
- 06** *Sexu-orientazioa eta genero-identitatea*

Dokumentu
laguntzaileak

- 01 Arriskuen ebaluazioa
- 02 Metodologia orokorra
- 03 Glosario orokorra

Gender A B C

Ek egindako proiektua:



End FGM
EUROPEAN NETWORK



ASSOCIAÇÃO PARA O PLANEAMENTO DA FAMÍLIA



Europar Batasunak
kofinantzatutako proiektua